

**S.D. SAN INAZIO BEISBOLEN ETA
BILBAO KIROLAKEN ARTEKO
LANKIDETZA-HITZARMENA****CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE
BILBAO KIROLAK Y S. D. SAN INAZIO
BEISBOL**

Bilbon, 2018ko martxoaren 20an.

BILDU DIRA

Aide batetik, **Oihane Aguirregoitia Martínez andrea**, **Bilbao Kirolak TEAren** presidente gisa.

Eta, bestetik, **Fernando San Andrés Clemente**, adin nagusikoa, **Sociedad Deportiva San Inazio - Beisbolen** ordezkari gisa.

Biek aitortzen diote elkarri hitzarmen hau formalizatzeko eskumena eta gaitasuna, eta, horretarako,

ADIERAZTEN DUTE

- **Sociedad Deportiva San Inazio - Beisbol** irabazi asmorik gabeko elkarte, plurala eta independentea dela, eta beisbolaren praktika garatu nahi duela.

- **Bilbao Kirolakek**, diru-laguntza ildoan esparruan, honako helburu hauek dituela:

1. Kirola sustatzea eta Bilboko biztanleen gorputz-kultura garatzea, baita kirol-jarduerak ere. Haren instalazioak beste kultura- edo arte-jarduera batzuetarako erabili ahalko dira, kirol-jarduerak egitea eragozten ez badute edo horiei kalterik egiten ez badiete.
2. Kirol-instalazio berriak sortzea.
3. "Kirolei" dagozkien udal-jabetzen erabilerak administratzea eta arautzea.
4. Elkartearen helburuak betetzeko beste instalazio publiko edo pribatu batzuen balizko erabilera kudeatzea.

Bilbao, a 20 de marzo de 2018.

REUNIDOS

De una parte, **Dña. Oihane Aguirregoitia Martínez**, en calidad de Presidenta de **Bilbao Kirolak OAL**.

Y de otra, **D. Fernando San Andrés Clemente**, mayor de edad, en representación de la **Sociedad Deportiva San Inazio - Beisbol**,

Ambos se reconocen competencia y capacidad para formalizar el presente convenio y a tal efecto

EXPONEN

- Que la **Sociedad Deportiva San Inazio - Beisbol** es una asociación sin ánimo de lucro, plural e independiente que pretende el desarrollo de la práctica del beisbol.

- Que **Bilbao Kirolak** en el marco de las líneas de subvención tiene como objetivos:

1. La promoción deportiva y el desarrollo de la Cultura Física de la población de la Villa de Bilbao, así como las prácticas deportivas, sin perjuicio de que sus instalaciones sean utilizadas para otras actividades de tipo cultural o artístico siempre que éstas no interfieran o perjudiquen a las deportivas.
2. La creación de nuevas instalaciones deportivas.
3. La administración y regulación de los usos de las propiedades municipales afectadas a "Deportes".
4. La gestión del posible uso de otras instalaciones públicas o privadas para el cumplimiento de los fines de la Sociedad.

- Bi aldeek oso positibotzat jotzen dutela urte hauetako esperientzia, hain zuzen, beisbolaren praktika garatzea ahalbidetu duena.

- Ondorioz, **Bilbao** Kirolakek 2018ko aurrekontuan diru-laguntza izenduna onartu zuela **Sociedad Deportiva San Inazio - Beisbolekin** hitzarmena sinatzeko.

- Que ambas partes valoran muy positivamente la experiencia desarrollada a lo largo de estos años que ha posibilitado el desarrollo de la práctica deportiva del beisbol.

- Que, en consecuencia, **Bilbao** Kirolak aprobó en el Presupuesto 2018 una subvención nominativa, para la suscripción del Convenio con la **Sociedad Deportiva San Inazio - Beisbol**

HITZARTU DUTE

Hitzarmen hau formalizatzea, klausula hauei jarraiki:

ACUERDAN

Formalizar el presente convenio conforme a las siguientes

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Xedea

Hitzarmenaren xedea **Bilbao** Kirolaken eta **Sociedad Deportiva San Inazio - Beisbolen** arteko lankidetzaren esparrua arautzea da, 2018. urtean haren jarduera gara dezan.

CLAÚSULAS

PRIMERA.- Objeto

El presente Convenio tiene por objeto regular el marco de la colaboración entre **Bilbao** Kirolak y la **Sociedad Deportiva San Inazio - Beisbol** para el desarrollo de su actividad durante el año 2018.

BIGARRENA.- SOCIEDAD DEPORTIVA SAN INAZIO - BEISBOLen konpromisoak

1.- SOCIEDAD DEPORTIVA SAN INAZIO - BEISBOLek beisboleko programak egingo ditu, baita honako helburu hauetarako egokitzen jotzen diren beste programa batzuk ere:

- Senior talde bat mantentzea Estatuko beisboleko bi maila gorenetako batean (Ohorezko Mailako Beisbol Nazional Liga eta 1. "A" Mailako Beisbol Nazional Liga).
- Pedro Aldayren oroimenezko saria abiaraztea. Kirol-ekitaldi herrikoia izango da, eta helburua Bilbon beisbola sustatzea izango da.

2.- Bilbao Kirolaken irudi korporatiboa erabiltzea egiten diren ekintza guztietan eta erabiltzeko informazio-euskarrietan, azpian adierazitakoari jarraituz.

SEGUNDA.- Compromisos de la SOCIEDAD DEPORTIVA SAN INAZIO - BEISBOL

1.-La SOCIEDAD DEPORTIVA SAN INAZIO - BEISBOL desarrollará programas de beisbol, así como otros que se consideren oportunos para el cumplimiento de los siguientes objetivos:

- Mantenimiento de un equipo de categoría senior en una de las dos máximas categorías estatales del Beisbol (Liga Nacional de Beisbol de División de Honor y Liga Nacional de Beisbol de 1ª División "A")
- Poner en marcha el "Memorial Pedro Alday" Evento deportivo de carácter popular, que tendrá como objetivo la promoción del Beisbol en la Villa de Bilbao.

2.-Incorporar la imagen corporativa de **Bilbao** Kirolak en todas las acciones que se realicen y en los soportes informativos utilizados, del siguiente modo.

1. **Sociedad Deportiva San Inazio - Beisbole**k konpromisoa hartzen du lehiaketa-jantzietan Bilboko B letra jartzeko.
2. **Sociedad Deportiva San Inazio - Beisbole**k konpromisoa hartzen du **Bilbao** Kirolaken logoa kirolarien jantzietan jartzeko.
3. **Sociedad Deportiva San Inazio - Beisbole**k jokalariei irudia lagako die, Bilbao Kirolaken kirola zabaltzeko eta sustatzeko ekintzetarako.

1. La **Sociedad Deportiva San Inazio - Beisbol**, se compromete a que en la equipación de competición figure la B de Bilbao.
2. La **Sociedad Deportiva San Inazio - Beisbol**, se compromete a que el logo de **Bilbao** Kirolak figure en las equipaciones de los deportistas.
3. La **Sociedad Deportiva San Inazio - Beisbol**, cederá a sus jugadores y su imagen para acciones de publicitarias y promoción del deporte por parte de **Bilbao** Kirolak.

HIRUGARRENA.- Bilbao Kirolaken konpromisoak

Sociedad Deportiva San Inazio - Beisboli 36.000 €-ko zenbatekoa ordaintzea (BEZA eta egon litezkeen beste zergak, tasak eta tributuoak barne). Diru-laguntza hau bateraezina da **Bilbao** Kirolaken beste edozein diru-laguntza ildorekin. Zenbateko osoa ordainketa bakar batean ordainduko da hitzarmena sinatu ondoren, eta, horretarako, ez zaio onuradunari inolako bermerik eskatuko.

LAUGARRENA.- Bateragarritasuna edo bateraezintasuna beste diru-laguntza batzuekin.

Hitzarmen honi jarraituz emandako diru-laguntza bateragarria izango da beste administrazio batzuek edo erakunde publiko edo pribatu batzuek (Estatukoak edo nazioartekoak) emandako diru-laguntzekin. Kasu horretan, **Bilbao** Kirolaki jakinarazi beharko zaio. Diru-laguntza hau bateraezina da **Bilbao** Kirolaken beste edozein diru-laguntza ildorekin, hitzarmen honetan bilduta ez dauden programei, jardueri edo ekitaldiei zuzendutakoen kasuan izan ezik.

TERCERA.- Compromisos de Bilbao Kirolak

Abonar a La **Sociedad Deportiva San Inazio - Beisbol** la cantidad de 36.000 € (IVA y otros impuestos, tasas y tributos en su caso incluidos). Esta subvención es incompatible con cualquier otra línea de subvenciones que mantenga **Bilbao** Kirolak.

El abono de la cantidad total se efectuará en un único pago tras la firma del Convenio, no exigiéndose para ello garantía alguna al beneficiario.

CUARTA.- Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones.

La subvención concedida al amparo del presente convenio, será compatible con las que, en su caso, concedan otras Administraciones, Entes Públicos o Privados, nacionales o internacionales. En cuyo caso, deberán comunicarlo a **Bilbao** Kirolak.

Esta subvención es incompatible con cualquier otra línea de subvenciones que mantenga **Bilbao** Kirolak, salvo aquellas dirigidas a programas, actividades o eventos no contemplados en los compromisos del presente Convenio.

BOSGARRENA.- Baldintza orokorrak

Diruz lagundutako erakundeek konpromisoa hartuko dute emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorraren alde egiteko, eta modu aktiboan sustatuko dute emakumeen parte-hartzea. Era berean, hizkuntza ez-sexista erabiltzen dela zaindu beharko dute, hala idatziz nola ahoz, eta elementu bisualak bi sexuekin errespetuzkoak direla ere zaindu beharko dute.

Modu berean, jardueretan EAEko bi hizkuntza ofizialak erabiltzen direla zainduko dute.

Kontuan hartuta gizarteak kirolaren esparruari esleitzen dizkion balioak, diruz lagundutako erakundeek kirola balioen eskola gisa eskaintzen lagunduko dute, hainbat jokabide eta trebetasun erabilita: talde-lana, esfortzuaren kultura, elkartasuna, araeekiko errespetua, osasunaren zaintza arduratsua, etab.

SEIGARRENA.- Justifikazioa

Justifikazioa bat etorri beharko da diru-laguntzen araudian ezarritakoarekin.

Programa amaitzen denetik hiru hilabeteko epean, justifikazioko kontua aurkeztu beharko du, eta horrek honako hauek bilduko ditu:

Programa betetzeko egindako jardueren memoria.

Programa betetzeari dagokion gastuen eta diru-sarreraren balantzea, TCak, alokairuen eta horniduraren gastua, materialak erostea eta jarduerak egitea; horretarako, hori egiaztatzen duten faktura originalak aurkeztu beharko dira.

ZAZPIGARRENA.-
indarraldia**Hitzarmenaren**

Hitzarmenaren indarraldia 2018ko abenduaren 31ra artekoa izango da, eta atzeraeraginezko efektuak izango ditu 2018ko urtarrilaren 1etik.

QUINTA.- Condiciones generales

Las entidades subvencionadas se comprometen con la igualdad efectiva de mujeres y hombres y promoverán activamente la participación de estas. Así mismo velarán por la utilización de un lenguaje no sexista tanto por escrito como oralmente y porque todos los elementos visuales sean respetuosos con ambos sexos.

De igual forma velarán porque en el desarrollo de sus actividades se utilicen las dos lenguas oficiales de la CAV.

Teniendo en cuenta los valores que la sociedad atribuye al ámbito del deporte, las entidades subvencionadas colaborarán para ofrecer el deporte a la sociedad como escuela de valores, adoptando comportamientos y habilidades como el trabajo en equipo, la cultura del esfuerzo, la solidaridad, el respeto a las normas, el cuidado responsable de la salud, etc.

SEXTA.- Justificación

La justificación deberá ajustarse a lo establecido en la normativa de subvenciones.

En el plazo de tres meses a contar desde la finalización del Programa deberá presentar la Cuenta Justificativa que incluirá:

La memoria de las actividades llevadas a cabo para la ejecución del programa.

El balance de gastos e ingresos correspondiente a la ejecución del programa; TCs, el gasto de alquileres y suministro, compra de materiales y realización de actividades mediante la presentación de facturas originales acreditativas

SEPTIMA.-Vigencia del Convenio

El presente Convenio tiene un período de vigencia hasta el 31 de diciembre de 2018, teniendo efectos retroactivos desde el día 01 de enero de 2018.

Ados daudela adierazteko, hitzarmen hau sinatu dute, bi alatan eta ondorio bakarrerako, goian adierazitako lekuan eta datan.

En prueba de conformidad, se firma el presente convenio por duplicado y a un solo efecto en el lugar y fecha antes indicados.

Oihane Aguirregoitia Martínez
Presidenta **Bilbao** Kirolak OAL
Bilbao Kirolak TEaren presidentea

Fernando San Andrés Clemente
S.D. SAN INAZIO BEISBOL